

BALOREZKO PROPOSAMENA

Birzikloop proiektua eguneroko egoera batetik sortzen da: askotan oraindik erabil daitezkeen gauzak botatzen ditugu. Batzuetan pixka bat apurtuta daudelako, beste batzuetan konpontzea garestia edo zaila dela uste dugulako. Birzikloop-ek hori aldatu nahi du.

Proiektuaren ideia nagusia objektuei bigarren bizitza ematea da, ingurunea zaintzen lagunduz eta, aldi berean, pertsonen dirua aurrezten lagunduz. Konpontzea, berrerabiltzea eta birziklatzea planetarentzat hobea izateaz gain, zentzuzkoagoa eta merkeagoa da.

Birzikloop-ek bi modu nagusitan funtzionatzen du. Alde batetik, mugikorrerako aplikazio bat eta webgune bat dauka. Bertan, erabiltzaileek behar duten informazio guztia aurki dezakete: ordutegiak, prezioak, zentroaren kokapena, tailerra eta egiten diren jarduerak. Guztia modu erraz eta argian antolatuta dago, edonork erabiltzeko modukoa izan dadin.

Aplikazioaren eta webgunearen bidez hitzorduak eskatu, zalantzak argitu eta proiektuarekin harremanetan jarri daiteke. Gainera, Birzikloop-ek online denda bat dauka, non konpondutako eta bigarren eskuko produktuak saltzen diren. Denda hau ez dago Euskal Herrira mugatuta, baizik eta Espaineko pertsonen ere saltzeko aukera ematen du, proiektua handiagoa eta iraunkorragoa bihurtuz. Etxez-etxeko zerbitzuak eskaintzen ditugu, beharrezkoa bada. Hau da, etxetresna elektriko edo/eta altzari handi eta astun bat baduzu, zure helbidera hurbilduko gara daukagun kamioiarekin eta guk garraiatuko dugu.

Bestetik, Birzikloop-ek zentro fisikoa du. Bertara jendeak etxeko objektuak eraman ditzake, hala nola gailu elektronikoak, arropa, altzariak, konpontzeko, trukatzeko edo berrerabiltzeko. Zentro hauek ez dira tailerrak bakarrik; ikasteko, partekatzeko eta elkarrekin egoteko espazioak ere badira.

Proiektuak tokiko tailerrekin, negozio txikiekin, udalekin eta hezkuntza-zentroekin lan egiten du. Horri esker, tokiko ekonomia indartzen da, lan-aukerak sortzen dira eta hondakin kopurua murrizten da. Denek irabazten dute: herritarrek, negozioek eta ingurumenak.

Birzikloop-en beste ardatz garrantzitsu bat hezkuntza da. Ikastetxeetan tailerrak antolatzen ditugu, gazteek txikitatik gauzak zaintzen, ez botatzen eta kontsumo arduratsua egiten ikas dezaten.

Laburbilduz, Birzikloop ez da negozio hutsa; gauzak beste modu batera egiteko proposamena da. Teknologia, pertsonak eta jasangarritasuna uztartzen dituen proiektua da, egunerokoa hobetzeko, planeta zaintzeko eta komunitatea indartzeko sortua.